

SH.A egungoa

S i n d i k a l H e z i k e t a

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa

I A B

Hezkuntza

Z A
B A I
T Z E N

Zbkia

SUK 00010

DOKUMENTAZIO
ZENTROA



2001eko egoera ekonomikoaren azterketa

Erredakzioa: **Joselu CERECEDA**
Rafa IZQUIERDO

Argitaratzailea: **Ipar Hegoa Fundazioa**



EUSKO JAURLARITZA
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

2002ko apirila

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa

1.- Euroa: kapitalaren aldeko ibilera korapilatsua	5
- Moneta politika nagusi	6
2.- Euroak oso gutxi eskaintzen du (Kapitalari izan ezik)	9
3.- Aldi baterako kontratazioa finkatzea, lan taldeak egokitzeko aukeraturiko bidea	11
4.- Desazelerazio ekonomikoa eta aldi baterako enpleguaren suntsiketa	15
5.- Eranskin estatistikoak	17



1. Euroa:

kapitalaren aldeko ibilera korapilatsua

Urte honen hasieran euroa indarrean ipini zen Moneta Batasunean. Europako Estatueta zirkulazioan zeuden monetak apurka apurka ahantzear daude. Indarrean ipintze hau, Europako integrazio ekonomikoa eta monetarioaren azken fasetzat (eta garrantzitsuentzat) hartzen da. Integrazio-prozesu hau hasi zen orain dela 50 urte baino gehiago (1951n), CECA (Comunidad Europea del Carbón y del Acero-Europako Ikatza eta Altzairu Elkarte) sortu zenean. 1957an Erromako Hitzarmena sortu zen eta, ondorioz, CEE (Europako Elkarre Ekonomikoa) eta sei Estatu-kide zirenek osatu zuten merkatu batu bat. Lehengo fase honetan, Europan inbertsioak koordinatzeko eta merkatuak arautzeko (nekazaritza eta energia, batez ere), lehengo aldiz, politika publikoa erabili zen. Fase honen beste ezaugarri bat: Europako Elkarteko helburuek ez zeukaten ia-ia inolako ezaugarri monetariorik. 1960etik, Europako Ekonomia Munduan erabateko aldatuta gertatzen da: gobernuak, EEE-an, merkatuko mekanismoei lehentasuna ematen hasi ziren. 1986an, Elkarteko Estatu kideak hamabi ziren jadanik. Urte honetan, Akta Bakarra deritzona sinatu zen helburu honetaz: 1992. urtetik aurrera Europako Esparru Ekonomikoaren oinarria, ondasun, zerbitzuen, langileen eta kapitalen Merkatu Bakarra izango zen. Harrez geroztik zoritxarrez, Neoliberalismoaren, Globalizazioaren funtsa izan da Europan



jardun duen gidari bakarra. Truke-askea da nagusi, erregulazio publikoa atzeratzen eta lan-merkatu desregulazioa eta pribatizazioa indartzen diren bitartean.

Bigarren fasea: Europan integrazioa lortzeko, moneta faktore nagusitzat hartzen da. Gogora dezagun 1971n AEBetako presidenteak, Nixonek, urre patroia desagertarazi egin zuela. Ordura arte, dolarra bihurtgarri, "konbertiblea" zen, hots, AEBko gobernuak konpromisoa zeukan: nahi izanez gero, urrea dolarren truke ematen zuen (urrezko ontza bat berdin 35 dolar). Garai hartan, moneta guztiak konbertibleak ziren, beraz, haien arteko truke-

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa.

tasa beti berdina zen. 1971z geroztik moneten truke-tasa aldagarri izaten hasi zen. Logikaz, EEEko estatuen kexkarik handienatariko bat zen moneta-egonkortasunetik babestea. Horregatik "moneta-sugea" deritzona sortu zen (kotizazioaz ezin zituzten gainditu, denboran zehar, markaturiko gehieneko eta gutxienezko topeak. Hori dela eta, kotizazioen bilakaerak suge antzeko irudi bat sortzen zuen). Hau sortu zen 1972an eta 1979an, Europako Moneta Sistema, Europako moneten truke-tasa egonkortzeko asmoz.

Moneta politika nagusi.

Hirugarren fasea: 1993an Maastricht-eko Ituna. Itun honen helburua moneta bakarra (euroa) sortu eta zeuden monetak desagertarazi ondoren, Moneta eta Ekonomia Batasuna sortzea zen. Harrez geroztik, Europako "eraikuntza"-k bi oinarri ditu: Akta Bakarra eta Maastricht-eko Ituna.

Gauzak horrela, Europako azpiegitura asimetrikoa, erabat, bihurtzen da. Asimetria honen ezaugarriak hauexek dira: 1º) Hamabi banku zentral daude, baina guztiok Europako Banku Zentraren menpe, zeren berak bakarrik dagoen Europako Moneta Politika Bakarra baitarama. Bestaldetik, estatu bakoitzak bere aurrekontu eta zerga politika erabakitzen ditu. 2º) Banku zentral guztiak, Europakoa barne, "askeak" dira, erabat (ez gobernuei, ez biztanleei, ez inori, ez dizkiete kontuak eman behar). 3º) Moneta Politikak duen lehentasunezko helburua mone-

ta egonkortasuna da. Neoliberalismoaren obsesioa: lehenengo eta behin prezioak zaindu behar, gero gerokak, honek gure arazo guztiak konponduko balitu bezala. Ondorio nagusia: inflazio handia dagoenean, prezioak galgatu behar, beraz -konponbide "bakarra"-, soldatak (errealak) gutxitu behar, euren igoerak KPI-IPC-renak baino gutxiagokoak izanik, Lan Merkaturia malgutu (desregulatu) behar (lan kontratuen baldintzak ustelduz, adib.). Enplegua, jarduera ekonomikoa, bigarren mailako arazoak dira, lehentasunezkoak izan beharrean.

Europako Moneta Batasunak duen kontraesanik handienatariko bat, Moneta Politikari ematen dien gehiegizko pisua da. Gaur egun, prezeski, gero eta fidagarritasun gutxiago dauka, hain zuzen. Izan ere, espekulazioa dela eta, ia ia ezinezkoa da Moneta Politika kontrolatzea. EBZ (Europako Banku Zentrala) horretan dabil jo eta ke, baina, egitez, epe laburreko korritu tasan izan dezake eragina. Baina erreminta honek gero eta eragin gutxiago duela frogatu da: Adibidez, AEBetako Erreserba Federalak, 2001etik gaur arte hamaika aldiz jaitsi du korritu tasa, AEBetako beheraldia ekiditzeko (edo ekonomia bultzatzeko), inolako emaitza eraginkor barik.

Munduan, lurralde guztien ekonomia truke-tasek eragiten dute, nahitaez, baina EBZaren helburua ez da inolaz ere truke-tasak aldatzea, beraz, Europako ekonomiak, nazioarteko ezegonkortasunaren menpe daude. Gainera, Moneta Batasunean, moneta bakarra

dagoenez, devaluazioa ezinezkoa da, beraz, estatu batek bere esportazioak handitu nahi baditu, prezioak jaitsi behar ditu, eta horretarako soldatak jaitsi behar. Neoliberalismoaren asmoa, Kapitalak aginduta.

Neoliberalismoak, soldata errealak txikiagoak, lan-kontratu ahulak, gastu publiko gero eta ahulagoa (Segurtasun Soziala eta orokorrean Gastu Soziala...), privatizazioak etab. nahi (exijitzen) ditu ekonomia "bultzatzeko". Gezur galanta, neurri hauek gizartearen aurkakoak izateaz gain, ez dute bultzatzen ez jarduera ekonomikoa, ez enplegua, ez ekoizpena.

Baina, Keynesek ondo baino hobeto frogatu zuenez, enplegua, jarduera, ongizatea, bultzatzeko eta krisia gainditzeko Ekonomia Politika, ez Moneta Politika erabili behar da (Gastu Publikoa handituz, adibidez, lanpostuak sortzeko. Defizit-a sortzen dela? Bost axola, zioen Keynesek, garrantzitsue-na, enplegua sortzea da).

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa.

2. Euroak oso gutxi eskeintzen du (Kapitalari izan ezik)

Hasteko, euroa jaio eta berehala, prezioak, inflazioa, nabarmenki igo dira. Hau momentuzko eragina izan da, noski. Euroari egokitzeak kostu handia izan du (monetarioa, soziala, transakzionala...), baina, benetan, zalantzarikoa dena, etorkizunean gerta daitekeena da.

Monetek, biletak, estetika posmoderno hutsa daukate: ia-ia ez dago inolako mezu, sinbolo, enblemarik. Moneta funtzionala, erabat, iragana ez du eza gutzen, eta ez gaitu etorkizunera hurbiltzen, ez dauka dimentsio kolektiborik, bere izena izan ezik. Euroak ezin du disimulatu bere legitimitatearen ahultasuna. Izan ere, Estatu batzuek sortu dute, baina Estatu hauek, momentuz, bederen, politikoki biltzeko zalantza haundiak daukate. Euroaz batasun politika sortu nahi da, baina, alderantzizko bidea hartu da, logikaren, Historiaren aurka. Izan ere, adibidez, AEBetan orain direla ehun urte gutxi gorabehera, hamar dolar desberdin baino gehiago zeuden. Batasun politikoa lortu ondoren, dolar bakarra sortu zen, logikaz. Europan, aldrebes egin da, lehendabiziz, moneta batasunari ekin, eta gero, batasun politikoari.

Euroaren balioak ez du ezer esan nahi.



Apologistek, zeharka, zera esan nahi dute: Euroak, liberak, markoak, lirak, pezetak eta abarrek zuten balio monetarioa baino handiagoa duenez, moneta indartsuagoa da, ia dolarraren parekoa. Gezurra: moneta baten balioa, sustatzen duen ekonomiaren arabe-koa da beti. AEBetako ekonomia, Europakoa baino indartsuagoa, irmoagoa, egonkorragoa da, beraz, dolarra euroa baino indartsuagoa da eta izango da

Gainera, euroaren atzetik dago EBZ. EBZak ez dauka inolako legitimitate politikorik zeren estatuz gaindiko aginte administratibo independentea izanik, bere mailako solaskide legiti-

morik ez baitu (dolarren kasuan, Tesoroko Departamendua, adibidez, edo pezetarenean, Ogasun Ministeritza).

Defizit asko dauka euroak: legitimitate gutxi, batasun politikorik eza, ez dauka komunitate politikak irudikatzen gaitasunik, ez dagokio egitasmo kolektibo bati. Eta momentuz, ez da antzematen estatuak ordezkatu dituen komunitate bat. Euroak bai, existitzen ziren monetak ordezkatzeko dituen, besterik ez. Beraz, dena artifiziala.

Gehiago berba egiten jarrai genezake. Agian, etorkizunean, denbora igarorokoa, euroa bameratuko dugu. Momentuz, dena kolokan dago. Geroak esango digu.

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa.

3. Aldi baterako

kontratazioa finkatzea, lan taldeak egokitzeko aukeraturiko bidea.


Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Bizkaia eta Arabako INEM-eko bulegoetan, 893.500 lan kontratu erregistratu ziren, gutxi gorabehera; baina gehiengo ikaragarri batek aldi baterako izaera zeukan eta mugagabeek, kontratazio osoaren %8,8 baino ez zuten suposatu.

Hala eta guztiz, gizonen mugagabeko kontratazioaren ehunekoa, handiena da, sinatu ziren lan kontratuen osoaren %9,7, emakumezkoena %7,9 eta gazteena %6 ziren bitartean.

Mugagabe arruntaren erabilerak, atzeraka darrai zeren, iaz, kontratazio osoaren %1,9 baino ez baitzuen suposatu, 2000n %2 zen bitartean.

Mugagabe arruntak, behin betiko desagertzeko joera dauka; enpresaburuek *enplegua sontengatzeko mugagabea* argi eta garbi hobesten dutela ikusi ondoren. Modalitate honek, legez kontrako kaleratzeagatik, indemnitzazio, kalte ordainketa, txikiagoa eskeintzen du¹ eta 1997ko Lan Erreformen ipini zen indarrean, CCOO eta UGT Sindikatuen bedekapenaz.

Bestaldetik, mugagabeen %38,7, aldi baterako lan kontratuen bihurtetaren



ondorioa da, 2000n, batezbesteko hau %17,9 izan zen bitartean. Datu honek zera frogatzen du: aldi baterako kontratazioaren ehuneko handi bat, gezurrezkoa dela eta enpresen lan inraunkorrak garatzeko erabiltzen dela.

Dena den, bihurtetaren erritmoa, urtearen bigarren sehilabetekoan handiagoa izan zen, aldibaterako lan kontratuak mugagabeak bihurtzeko² ematen diren pizgarriak aldatu ondoren. Aldaketa hau, martxoan, dekretu batek era-

¹ Sustapeneko lan kontratu mugagabe baten iraungipenak, legez kontrako edo bidegabekotzat hartzen denean, lan egindako urte bakoitzagatik, 33 eguneko kalte-ordaina kobratzeko eskubidea sortuko du, 24 hileko gehienezko batez. Mugagabe arruntaren kasuan, kalte-ordaina, lan egindako urte bakoitzagatik 45 egun izanik eta gehienezkoa, 42 hileko.

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa.

ginda egin zen Lan Erreformaren bi-
dez sortu zen.

Aldaketa hauen arabera, *aldi partzia-
leko lan kontratuak mugagabe ez-ja-
rrituak eraldatzea* ekintza hobaritu-
ztat hartzen hasi zen, baina pizgarriak
bakarrik ziren urtearen bukaera baino
lehen egindako bihurketarako.


Nahiz eta lan kontratu mugagabera
bihurketak positibotzat hartu, haus-
narketa kritikoa egin behar da: aipatu-
riko bihurketak, komenioak eta pakto-
ak negoziatzeko orduan, ugazaberiari
ateratako konpromisoen ondorioak di-
rela edo, bestela, Gizarte Segurantz

egindako kuoten murriztapenez profi-
tatu ondoren, enpresaburuek bere ka-
buz eginak diren baloratzeke.

Aldi baterako kontratazioaren kopuru
eskandalagarria kontuan hartuz eta
borroka sindikala erabiliz aukera ezin
hobe dago, lan kontratu mugagabera
bihurketa gehiagotzeko eta aldi bate-
rako lan kontratuen kateamendu justifi-
kiazina ekiditzeko.

*Ekoizpen arrazoiengatik aldi baterako
lan kontratuez* egin daitezkeen lanak
-aurrez ez ikusiak- finkatzeko orduan,
ardura handiagoz jardun behar da.
Eredu hau erabiliena da eta kontrata-

² Pizgarriak hauexek dira: Gizarte Segurantzarako enpresa kuotaren %25, lan kontratu berriaren lehengo bi urtetan. 2001.ko lehen-
dabiziko erdian, mugagabeen %31,7 bihurketak egin ondoren sortuak ziren.



zio osoaren %30 suposatzen du. Era honetan legez kanpo egiten den izu-garrizko kontratazioari mugakipintzeko, lan kontratu eredu honetaz kontratatu ahal izango den lan taldearen gehienezko ehunekoa erabakitzea eraginkorra litzateke.

Obra edo zerbitzuko lan kontratua, bigarren eredurik erabiliena da, zeren 2001ean sinatu ziren kontratuen %27,6 suposatu baitzuen. Bere erabilera mugatzeko, kontratu honek bete behar dituen lan-helburuak argi eta garbi zehaztu behar dira, izaera iragankorra daukatenak alde batera utzita, nahiz eta azpikontratek garatuta izan.

Aldi partzialeko kontratazioak ere, toki nabarmena dauka, kontratazioaren %21,2 suposatzen duelako. INEMek talde honetan txandakako lan kontratuak sartu arren, plantilak berriztatze-ko gutxi erabilia izan da.

PPko gobernua *aldi partzialeko lan kontratuaren definizioa* eraldatu zuen, ugazaberiaren asmoak betetzeko eta modalitate hau, lan malgutasuna lortzeko muturreko baliabidea bihurtzeko. Harrez geroztik, *aldi partzialaz* oso-ko lanaldia baino gutxiagoko iraupena duen edozein lan kontratua ulertzen da eta gainera, ez da beharrezkoa hila-beteko, asteko edo eguneko lanaldiaren iraupena zehaztea. "Sartutako" desregulazio hau, enpresak nahi duenean eta bere gustuko, "osagarritzko orduak" egiteko posibilitateaz osatzen da. Modu honetaz, horrela kontratatzen diren langileak, zuzendarintzaren beharren eta nahikerien men-



pe egongo dira beti.

Aldi partzialeko lan kontratuen %72 emakumeak kontratatze-ko erabiltzen da, hauxe da sexuagatik egindako bereizkeriaz adibide argi baino argiagoa.

Prestakuntzako edo zarama-kontratuari dagokionez, hasieran 16 eta 21 tarterko adina daukaten gazteei begira egina, bere erabilera hedatzeko asmoak porrot egin duela esan daiteke. Hasieran pentsatuta zegoen kolektiboa zabaldu zen eta giza bazterketa egoeran dauden pertsonak sartu ziren, kolektiboaren definizioari esanahi oso zabala emanez.

Iaz, 4.000 baino apur bat zarama-kontratu gehiago sinatu ziren eta ia guztiak, 25 urte baino gutxiagoko gazteak kontratatze-ko erabili ziren.

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa.

Hala eta guztiz, eredu honek, gazte-ek sinaturiko kontratuen %1,3 baino ez zuen suposatu.

Kontratazioan dauden aldikotasun kopuru eskandalagarriaz gain, langileriak beste gaitz endemiko bat paira-tzen du: lan errotazioa. 2001ean sinatu ziren aldi baterako lan kontratuen %75 baino gehiagok, hiru hilabete baino gutxiagoko iraupena izan zuten.

Baina ABLE deritzon enpresen bidez egiten diren kontratuak txarrenak eta laburrenak dira, inolako zalantza barik. Ugazaberiak, Europako Bata-sunean baino, Hego Euskal Herrian gehiago erabiltzen ditu aipaturiko ABLEak, nahiz eta jarduera arrisku-tsuak gara-tzeko debekatuta egon eta soldatak sektore bakoitzean in-darrean dauden soldatekin berdindu behar.

ABLE izeneko enpresek, lan merka-tuan azken urteotan lorturiko bitarte-kotze gaitasuna mantentzen dute, gu-txi gorabehera, hots, ia-ia aldi baterako kontratuen %22 ABLE en-presen bidez taxutu ziren, pertsonen talde esanguratsu bat, bigarren mailako langileak eta ordezkariak sindikala izateko eskubide bakoak bihurtuz. Laburbilduz: kontratu hauek, langileriaren zatiketa erraz-teko baliabide bat dira.

4. Desazelerazio ekonomikoa eta aldi baterako enpleguaren suntsiketa


2000ko bigarren seihilekoan hasi zen desazelerazio ekonomikoak, joan den urte osoan, bere joera mantendu zuen, jarduera ekonomikoa galgatzuz. Hego Euskal Herrian, garapen ekonomikoak %2,8 ez zuen gainditu, 2000n, %4,3 izan zen bitartean.

Garai batzuetan garapenaren motorrak izan ziren jarduera industrialaren eta esportazioen galgak, 1992-93 tartean hasi zen fase hedakorri amaiera eman dio.

Aurreikuspen ekonomiko txarrekin, jandik eragin dute lan merkatuan, lanpostuen kopuru garrantzitsu bat desagertaraziz eta langabezia dauden pertsonak handituz.

Beste behin, langile klaseak, ezegonkortasun egoeran, preziorik altuena ordaintzen du, enpresen emaitza kontuetan islatzen ez diren bitartean. Baina Balantzeen Zentralak dioenez, enpresen errentagarritasunak igotzen darrari arren, enpresaburuek, langileria gastuak murrizteko, kaleratzeak erabiltzen dituzte, inolako zalantza eta kupida barik.

2001eko azken hilabeteetan, Hegoaldeko lurralde guztietan enplegu mailan jaitsiera jasan zuten, gutxi gorabehera 9.000 pertsonak galdu zuten beren lanpostua. Beti lez, ondorioak gehien pairatu zituztenak, gazteak eta emakumeak izan ziren. Praktikan, 4. hiruhila-



betekoan lanpostua galdu zuten 10 pertsonatartetik, 9 emakumeak izan ziren, eta erdia baino gehiago, 25 urtetik beherakoak.

Ugazaberia behin-behinekotasunaren tasa handiez, aldi baterako lan kontratuak sun-tsitzeke profitatzen da, horregatik, enplegu mailan gertatu den jaitsierak, aldi baterako lan harremana duten langileengan izan du eragina, batez ere. Horixe da, aldikotasun tasa, portzentajeko puntu bat baino gehiagotan murrizteko modu triste eta penagarria.

Horregatik, 2001eko azken hiruhilabetean, aurrekoan baino 14.000 langile gutxiagok zeukaten aldi baterako

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa.

lan kontratua, lan kontratu mugagabe daukatenak, 2.500 gehiago baino ez diren bitartean. Dena den, aldikotasun tasa %29 da. Soldatapeko emakumeen kasuan, aldikotasunak %36 gaitzen du, eta gazteen artean, %72,3.

EPAn azken inkestaren datuak, 2000ko laugarren hilabetekoekin parekatzen badiugu, egiaztatzen dugu iaz 8.000 lanpostu baino ez zirela sortu, hots, aurreko urteko laurdena baino gutxiago.

Beraz, enpleguaren hazkunde tasa ez da ezta 0,8% ere izan, eta Lakuako Exekutiboak zein Nafarroako Gobernu Foralak egindako aurreikuspenetatik oso urrun dago, aurreikuspen hauek %1,3 eta %3 hurrenez hurren baitira.

Langabeziari dagokionez, oraindik ia 111.000 langabetu daude, %65 emakumeak izanik. Lurraldeka, Nafarroa eta Bizkaiarena dira bilakaerarik txarrenak. Nafarroa da, hain zuzen, 2001ean langabetuen kopurua hazi den lurralde bakarra (+1.400). Bizkaietan, langabezia jaitsi zen, baina iaz baino 3.000 enplegatu gutxiago daude.

Langabetuen kopurua ez da hazi enpleguen kopurua jaitsi den neurri berean. Honek, egoera soziorabazalaz etsita dagoen talde garrantzitsua dagoela esan nahi du (emakumeak batik batik). Jende honek enplegu bilatzeari uzten dio, harrez geroztik pasibo, inaktibotzat hartzen da, eta horrela langabetuaren izaera galtzen dute.

EPAn, 2000tik aurrera sartuko diren aldaketa metodologikoen, langabeziaren datuak ezkutuko, kamuflatuko dituzte, baina ez dute arazoa konponduko.

5. Eranskinak

HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MERKATUA

EPA: 2001ko 4. hiruhilekoa

SEXU BLOK	4.hiruh /01	4.hiruh /00	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	1.032.100	1.024.100	8.000	Guztira	814.900
LANGABETUAK	110.900	124.100	-13.200	Mugagabeak	578.200
AKTIBOAK	1.143.000	1.148.200	-5.200	Aldibaterakoak	236.700
LANGABEZI TASA	9,7	10,8	-1,1		
ENPLEGU TASA	46,9	46,5	0,4	LANGABEZIAN	
JARDUERA TASA	51,9	52,1	-0,2	urtebete +	58.000
ALDIKOTASUN TASA	29,0	29,8	-0,7	2 urte +	42.200
16 urtetik gorako biztanleria	2.202.100	2.202.900	-800		

EMAKUMEAK	4.hiruh /01	4.hiruh /00	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	398.100	393.700	4.400	Guztira	328.500
LANGABETUAK	71.800	81.500	-9.700	Mugagabeak	209.900
AKTIBOAK	469.900	475.200	-5.300	Aldibaterakoak	118.600
LANGABEZI TASA	15,3	17,2	-1,9		
ENPLEGU TASA	34,9	34,3	0,5	LANGABEZIAN	
JARDUERA TASA	41,1	41,4	-0,3	urtebete +	41.400
ALDIKOTASUN TASA	36,1	35,9	0,2	2 urte +	30.100
16 urtetik gorako emakumeak	1.142.000	1.147.200	-5.200		

GIZONAK	4.hiruh /01	4.hiruh /00	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	634.000	630.400	3.600	Guztira	486.300
LANGABETUAK	39.100	42.700	-3.600	Mugagabeak	368.400
AKTIBOAK	673.100	673.100	0	Aldibaterakoak	117.900
LANGABEZI TASA	5,8	6,3	-0,5		
ENPLEGU TASA	59,8	59,7	0,1	LANGABEZIAN	
JARDUERA TASA	63,5	63,8	-0,2	urtebete +	16.700
ALDIKOTASUN TASA	24,2	25,6	-1,4	2 urte +	12.100
16 urtetik gorako gizonak	1.059.600	1.055.800	3.800		

GAZTEAK (< 25 urte)	4.hiruh /01	4.hiruh /00	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	100.600	110.600	-10.000	Guztira	90.700
LANGABETUAK	27.600	32.000	-4.400	Mugagabeak	25.100
AKTIBOAK	128.200	142.600	-14.400	Aldibaterakoak	65.600
LANGABEZI TASA	21,5	22,4	-0,9		
ENPLEGU TASA	33,2	34,4	-1,1	LANGABEZIAN	
JARDUERA TASA	42,4	44,3	-2,0	urtebete +	8.100
ALDIKOTASUN TASA	72,3	68,9	3,4	2 urte +	5.000
16 urtetik 25era	302.700	321.700	-19.000		

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa.

INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK (ehuneko bertikalak). HEGO EUSKAL HERRIA, 2001 urtea

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	SEKTOREAK						
		LEHEN SEK.	INDUST.	ERAIKUN.	ZERBITZ.	GIZONAK	EMAKUM.	GAZTEAK
MUGAGABE GUZTIAK	%8,8	%15,1	%14,9	%6,5	%7,7	%9,7	%7,9	%6,0
ARRUNTAK	%1,9	%3,4	%3,4	%1,9	%1,6	%2,8	%1,0	%0,7
SUSTAPENekoAK	%1,8	%1,3	%2,9	%1,5	%1,6	%1,7	%1,9	%1,3
ALDI PARTZIALEKOAK (1)	%1,6	%8,7	%1,3	%0,3	%1,7	%1,1	%2,2	%1,5
BIHURTUAK	%3,4	%1,6	%7,1	%2,7	%2,8	%4,0	%2,8	%2,6
GAINONTZEKOAK	%0,1	%0,1	%0,2	%0,1	%0,1	%0,1	%0,1	%0,0
ALDI BATERAKO GUZTIAK	%91,2	%84,9	%85,1	%93,5	%92,3	%90,3	%92,1	%94,0
OBRA EDO ZERBITZUA	%27,6	%46,6	%30,6	%73,2	%20,4	%37,2	%17,1	%25,1
EKOIZPENETAKOAK	%29,8	%26,9	%38,2	%13,3	%30,3	%32,5	%26,7	%33,5
BITARTEKOAK	%9,5	%4,5	%5,1	%0,6	%11,7	%5,7	%13,6	%6,9
ALDI PARTZIALEKOAK (2)	%21,2	%3,7	%6,6	%3,0	%27,0	%11,4	%31,9	%23,8
PRAKTIKETAKOAK	%1,1	%0,2	%2,4	%0,9	%0,9	%1,3	%1,0	%2,1
PRESTAKUNTZAKOAK	%0,5	%0,1	%0,5	%1,0	%0,4	%0,6	%0,3	%1,3
GAINONTZEKOAK	%1,5	%2,9	%1,8	%1,4	%1,5	%1,7	%1,4	%1,2
KONTRATU GUZTIAK	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100

(1) Aldizkako kontratu finakoak barne.

(2) Errelebu kontratuak barne.

**INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK (ehuneko horizontalak).
HEGO EUSKAL HERRIA, 2001. urtea**

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	SEKTOREAK						
		LEHEN SEK.	INDUST.	ERAIKUN.	ZERBITZ.	GIZONAK	EMAKUM.	GAZTEAK
MUGAGABE GUZTIAK	%100	%2,2	%25,9	%7,4	%64,6	%57,3	%42,7	%23,9
ARRUNTAK	%100	%2,2	%27,1	%9,7	%61,0	%75,6	%24,4	%11,9
SUSTAPENekoAK	%100	%1,0	%25,1	%8,6	%65,3	%49,2	%50,8	%25,0
ALDI PARTZIALEKOAK (1)	%100	%6,8	%12,4	%2,1	%78,7	%34,4	%65,6	%32,6
BIHURTUAK	%100	%0,6	%32,0	%8,0	%59,4	%61,3	%38,7	%26,4
GAINONTZEKOAK	%100	%1,1	%24,0	%6,5	%68,4	%74,0	%26,0	%12,0
ALDI BATERAKO GUZTIAK	%100	%1,2	%14,3	%10,2	%74,3	%51,8	%48,2	%35,9
OBRA EDO ZERBITZUA	%100	%2,1	%17,0	%26,4	%54,4	%70,3	%29,7	%31,8
EKOIZPENETAKOAK	%100	%1,1	%19,7	%4,4	%74,8	%57,1	%42,9	%39,2
BITARTEKOAK	%100	%0,6	%8,2	%0,6	%90,6	%31,5	%68,5	%25,3
ALDI PARTZIALEKOAK (2)	%100	%0,2	%4,8	%1,4	%93,6	%28,1	%71,9	%39,0
PRAKTIKETAKOAK	%100	%0,2	%32,7	%8,4	%58,7	%59,2	%40,8	%66,7
PRESTAKUNTZAKOAK	%100	%0,1	%16,5	%21,7	%61,6	%66,2	%33,8	%99,9
GAINONTZEKOAK	%100	%2,4	%17,6	%9,3	%70,7	%56,6	%43,4	%28,3
KONTRATU GUZTIAK	%100	%1,3	%15,3	%10,0	%73,4	%52,2	%47,8	%34,8

(1) Aldizkako kontratu finakoak barne.

(2) Errelebu kontratuak barne.

2001eko egoera ekonomikoaren azterketa.

**LAN-ISTRIPUAK BAJAREKIN 2001. URTEAN
HEGO EUSKAL HERRIA**

SEKTOREAK	ARINAK	LARRIAK	HERIOTZA	GUZTIRA
LEHEN ARLOA	1.369	64	7	1.440
INDUSTRIA	28.049	249	22	28.320
ERAIKUNTZA	14.013	125	16	14.154
ZERBITZUAK	22.557	217	37	22.811
GUZTIRA	65.988	655	82	66.725
IN ITINERE	5.717	133	39	5.889
LAN ISTRIPU GUZTIAK	71.705	788	121	72.614